



EPEn PLAZA LORTU ONDOREN, ZER?

HAUTATUTAKO IZANGAIEK EGIN BEHARREKOA

1. DOKUMENTAZIOA:

Agiriak aurkeztea. (Deialdiko 11.1. puntua)

Hautatutako izangaiek hogei egun naturaleko epea izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik.

- a. Kidegoan sartzeko eskatutako **tituluaren fotokopia konpultsatua** edo titulua emateko eskubideak ordaindu direla adierazten duen ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua. Hautaketa-prozesuaren zehar aurkeztu dutenek ez dute aurkeztu behar.
- b. Indarrean dagoen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- c. Zinpeko Aitorpena edo agindua hezkuntza.net orrian agertzen den ereduaren arabera.
- d. Urritasunen bat izan eta bere izaera hortaz baliatu diren izangaiek izaera hori eta dagozkion zeregin eta eginkizunak betetzea bateragarriak direla jasotzen duen agiria entregatu behar dute. Baldin eta alde zuzenetik ez badute aurkeztu.
- e. Mediki ziurtagiria: Gaixotasunik ez izatea eta aukeratutako kidego eta espezialitateko eginkizunekin bateraezina den muga fisiko edo psikologikoaren eraginik ez izatea egiaztatzen duena.
- f. Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik zigortuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina. Hala ere, Hezkuntza Sailari aipatutako datuak egiaztatze-sistema elektronikoen bitartez kontsultatzeko berriazko baimena ematen diotenenek ez dute aurkeztu behar, 3.1.5 oinarrian adierazitakoaren arabera.

www.steilas.eus

Araba: Eulogio Serdán 5
01012 Gasteiz
945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia: Nikolas Alkorta 3, lonja 13
Zabalburu, 48003 Bilbo
944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa: Basotxiki 30-34 atz.
20015 Donostia
943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

2. PRAKTIKAK:

PRAKTIKALDIA EGITEKO LANPOSTUA AUKERATZEKO ORDUAN

- Plaza aukeratzeko EPEn ateratako notaren arabera ordenatzen da zerrenda.
- Praktikaldia EPEn lortutako espezialitatean egin behar da.
- Kontuan hartu lanpostuak bi urtetarako hartzen direla bakanteak jarraitzen badu.
- Aplikazio informatikan lurralde bat baino gehiago aukera dezakezu.

PRAKTIKALDIRAKO ARAUAK

- Praktiketako funtzionarioak irailaren 1ean izendatzen dira eta karrerako funtzionarioak praktikaldia gaindituz gero, hurrengo irailaren 1ean.
- Praktikaldiaren ikasturtean, gutxienez, sei hilabete gehi egun 1 lan egin behar da. Salbuespenak daude: amatasunean, haurdunaldian, gaixotasun luze batean... hiru hilabete gehi egun 1 jarraian.
- Praktiketako ordu kopurua betetzeko, lanaldia heren batean gehienez murriztu ahal da.
- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza aipatutako kausa batengatik ezin badituzu egin, urte bat atzeratzeko bost eguneko epea izango duzu.
- Ikastetxeari dagokion ikuskariaren eta ikastetxean izendatutako tutore baten ardurapean egiten da praktikaldiaren ebaluaketa. Ez da notarik jartzen, gai edo ez gai baizik. Praktikaldia gainditu ez duenak hurrengo ikasturtean egiteko aukera izango du soilik. Berrirori suspenditu edo egin ezean, oposizioa galtzen da.

LEKUALDATZE LEHIAKETAN LEHENENGO PARTE HARTZEA

- Behin betiko lanpostua lortu arte, urtero derrigorrez parte hartu behar da.
- EPEan lortutako notaren arabera ordenatzen dira lehenengo urtean eta ezin da meriturik aurkeztu.
- **EPEan plaza atera duzun espezialitatean emango dizute lehenengo behin betiko destinoa.**
- Eskaera betetzerakoan hiru lurraldeetako ikastetxeak jar daitezke. Ofizioz ematekotan, aplikazio informatikan aukeratu duzun lurraldean emango dizute lanpostua (ez baduzu aukeratzeko laneko zauden lurraldean eman dezakete).
- Behin betiko lanpostua lortzen ez duena behin-behineko funtzionarioa izango da. Behin betiko destinoa lortu arte, urtero parte hartzera derrigortuta dago. Egoera honetan merito guztiak aurkez daitezke puntuak lortzeko.
Emandako plazari uko egiterik ez dago.

**PROZESUA HASTEN DENEAN STEILASEK INFORMAZIO HITZALDIAK
ANTOLATUKO DITU**